

11/11

*i*rizpena

EUSKADI 2020. ECOEUSKADI 2020 GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
Estrategiari buruzkoa

Bilbon, 2011ko ekainaren 8an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpena 11/11

I. AURREKARIAK

2011ko apirilaren 26an, Eusko Jurlaritzaren Lehendakartzaren idazki bat sartu zen Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, *Euskadi 2020. EcoEuskadi Garapen Iraunkorrerako Estrategia Proiektuari* buruzko txostena eskatzeko, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.e) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Parte hartzeko eta erakundeek erabakiak hartzeko hainbat forotan izandako azterketaren eta eztabaidaren peko Estrategia Proiektuaren bertsioa denez gero, eten egingo da prozedura formalaren hasiera Estrategia Proiektuaren Agiriaren behin betiko bertsioa jaso arte, hots, maiatzaren 30era arte.

Agiri horrek Euskadi.2020. EcoEuskadi Garapen Iraunkorrerako Estrategia Proiektua dakar, eta gobernuaren eta EAEko gainerako herri administrazioen politika sektorialen multzoa txertatzeko bidea izan nahi du, herritarren parte-hartze handia duen herrialde ikuskera emateko, non iraunkortasun osoa bermatzen duten helburuen, jarraibideen eta printzipioen multzoa bilduko den, hots, ekonomia, gizarte eta ingurumen iraunkortasuna.

Garapen Ekonomikorako Batzordeari eratziki zaio agiri horren gaineko lanak egitea, eta 2011ko maiatzaren 16an bildu zen apirilaren 26an jasotako agiriko estrategiaren eduki orokorreari buruzko lehen eztabaida izateko. Maiatzaren 30ean berriz ere bildu zen agiriaren edukien hainbat oharbideren gaineko eztabaida egiteko, eta ekainaren 6an Irizpen Aurreproiekturako proposamena eztabaidatzeko hirugarren batzarra egin zen. 2011ko ekainaren 8ko EGABren osoko bilkurari ondoko Irizpen Proiektu hau bidaltzea erabaki zen. Ondoko hau aho batez onetsi zen.

II. EDUKIA

Agiriak 10 kapitulu eta 3 eranskin ditu. Ondoren laburbilduko ditugu:

1. Lehen kapituluan, ***ECO EUSKADI 2020: Etorkizun iraunkorrerako leiho estrategikoa*** izenburupean, Estrategia egiteko prozesuaren sarre-ra eta azalpena bildu dira, baita eskema ere. 2009ko ekainaren 5eko

“Urdaibaiko adierazpen” hartatik sortu zen EcoEuskadi 2020. Lehendakariak bertan adierazi zuenez, garapen eredu berriaren burua izateko asmoa zuen, Eusko Jaurlaritzaren ekintza politikoko zeharkako ardatz integratzaile gisa, EcoEuskadi 2020ren bidez betiere. IX Legegintzaldirako Plan eta Jarduketa Garrantzitsuenen egutegiko ekimen nagusienetakoa da eta, Euskadiren Garapen Iraunkorrerako Estrategia 2020ra artekoa denez gero, plan sektorialak iraunkortasunaren ikuspegitik bideratzen diren helburu estrategikoak ezartzen dituen tresna da.

Ezinbestekotzat jotzen da Euskadik garapen iraunkorrerako bere estrategia bideratzea, zeren eta lurralde-eremu bakoitzari egokituriko konpromiso politikotik kudeatu behar baita iraunkortasuna, betiere nazioarteko estrategiekin eta konpromisoekin txertatuta eta garapen iraunkorreko foru estrategiekin eta udalerrietako tokiko iraunkortasun-prozesuekin bat etorritik.

Ekonomiaren aldetik lehiakorra, berritzailea, ekoeraginkorra, gizartearen aldetik kohesionatua eta baterako erantzukizuna duen herrialde proiekturako ekintza publikoa bideratzeko eginkizuna du, herrialdearen ondarearen barneko ondasunen eta baliabideen kalitatearekin konpromisoa hartuta.

Lehendakaria izan da EcoEuskadi 2020 egiteko prozesuko burua, eta sail anitzeko eta erakunde anitzeko hainbat batzordek hartu dute parte. Idazkaritza teknikoa, berriz, lhoberen esku izan da. Antolakuntzaren egitura horrek indarrean jarraituko du *Garapen Iraunkorreko Bulegoa* deritzonaren testuinguruan. Presentziazko parte hartzerako eta partaidetza birtualerako hainbat modu ezarri dira, ahalik eta eragile eta herritar gehienek parte hartzeko apustuaren baitan.

Laneko prozesua

Hiru fase izan ditu lan egiteko metodologiak:

- *Prestakuntza*, 2010eko maiatzetik urrira: batzordeak eratu eta hasierako agiri metodologikoak egin dira.

- *Diagnostikoa*, 2010eko urritik 2011ko otsailera. Batzorde Teknikoak eginiko eta sail arteko eta erakunde arteko batzordeek erkaturiko hiru agiri euskarri hartuta gauzatu da fase hau:

- Agertokiak 2030. Euskadirentzako ondorioak
- Euskadiko 2011ko garapen iraunkorreko adierazleak
- Euskadirako egoerari buruzko diagnostikoa 2020an

Euskadi iraunkorrerako 2020rako zortzi gako aipatu ziren:

- Baliabide natural urriak eta agortzeko bidean
- Energi mendekotasuna eta klima-aldaketa
- Lehiaren globalizazioa
- Aldaketa demografiko sakonak
- Belaunaldien arteko errelebo desorekatua
- Aldatuz doan balioen sistemaren hauskortasuna
- Mugikortasuna eta garraio eutsiezina
- Nazioarteko garapen ezberdina

- *Estrategia bera egitea*, 2011ko otsailetik ekainera. Parte hartzeko prozesuak garatu dira batzordeek eginiko lanen aldi berean, eta etengabe elikatu da estrategia burutzeko prozesua. Hala, behetik gorako eskema (bottom-up) jarraitu da prozesua burutzeko, ahalik eta eragile gehienek parte hartzeko, adostasunik zabalena lortzeko eta euskal gizartearen pentsaera ezberdinen isla izateko.

Parte hartzeko prozesu zabala eta trinkoa

Ondokoak izan dira parte hartzeko prozesuan: Parte hartzeko 50 gune, 78 bilera edo presentziatzeko tailer, 388 erakunde ordezkatu, 2.381 pertsona protagonista (horietatik 1.161 gazte), gizarte sareetan irekitako guzuzen 584 erabiltzaile, prozesuan 9.350 lan-ordu baino gehiago.

Agerian utzi du garapen iraunkorrerako *Estrategia egitea* beharrezkoa eta premiazkoa izatearen inguruko adostasuna.

Udalsarea 21, Eusko Jaurlaritzaren saileko eta sail arteko saioak, euskal unibertsitateak eta Q Epea izan dira erakundeen ikuspegiaren ordezkariak, prozesuko batzordeez gain. Gizarte-ekonomia eragileen ekarpena, berriz, *Izaite*, *Bai+5*, *Garapen*, eta teknologi zentroi dagokie. Lan-saioak ere egin dira Deustuko Unibertsitatean; Mondragon Unibertsitatean eta EHU-n; lanbide heziketako, bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikastetxeetan eta gazteen hainbat elkarterekin. Gainera, Etorkizuneko Tailerrak egin dira herritarren arteko talde-dinamikaren bidez. Tailer horietan agerian gelditu denez, herritarrek positibotzat baina urrutikotzat jotzen dute garapen iraunkorra, eta ingurumenaren eta energiaren inguruko ezaugarriekin lotzen dituzte, ez ekonomia eta gizarte kohesioarekin.

II/11j

1.200 pertsonari eginiko galdetegia oinarri duen azterlan kuantitatibo aitzindaria ere egin da, eta herritarrek ekonomia, gizarte eta ingurumenaren arloko haztaperen orekatua eman dute bizi-kalitatearen kontzeptuari dagokionez. Merkatu globalizatuan euskal enpresek duten lehiakortasunaren eta enpleguaren etorkizunerako ezaugarri nabarmen hauek azaleratu dira: belaunaldien arteko eta nazioarteko baterako erantzukizuna eta baliabideen egungo kontsumoak hurrengo belaunaldien ongizatea arriskuan jartzen duela.

Estrategiaren eskema

Estrategia piramide-itxurarekin egituratu da ondoko kapituluetan, hau da, goitik behera: Eginkizuna, Ikuskera, Printzipio nagusiak, Helburu estrategikoak, Jarduketa-ildoak eta Zeharkako guneak.

Ondoko hiru kapituluokin osatzen da: Agintea, kudeaketa-eredua eta jarraibideak, iraunkortasun-irizpideak politika sektorialetan sartzeko (geroko xehetasun gida batean hedatuak).

Eta, azkenik, hiru eranskin: Estrategiaren helburu estrategikoak eta gobernu planak bateratzea, Estrategiaren helburu estrategikoak eta Foru Aldundien eta Udalsarea 21en garapen iraunkorreko planen helburuak bat etortzeak eta parte hartzeko prozesuaren laburpena.

2. EcoEuskadi 2020 Estrategia: Eginkizuna

EcoEuskadi 2020 estrategiaren eginkizuna da Gobernuaren eta gainerako herri administrazioen politika sektorialen multzoa txertatzeko bidea izatea, herritarren parte-hartze handia duen herrialde ikuskera emateko, non iraunkortasun osoa bermatzen duten helburuen, jarraibideen eta printzipioen multzoa bilduko den. Horretarako, izandako aurrerapena aldian-aldian ebaluatzea ahalbidetzen duten erreferentziako mugak ezarriko dira.

3. EcoEuskadi 2020 ikuskera

“Garapen iraunkorraren abangoardian kokatuko den herrialde proiektua eraikitzeko bidean aurrera egitea” asmoa ezarri da, eta halaxe laburbiltzen da Euskadiren inguruan izan nahi den ikuskera, 2020an izan nahi dugunari dagokiona: Euskal Metropoli gisa egituraturiko herrialdea, kohezionatua, herritar askeek eta osasuntsuek egina, bakean bizi izanda eta egungo ekoizpen-sistema eraldatzeko konpromisoa hartuta ekonomia bizi, egoeraginkor, lehiakor eta irekia eta karbono gutxikoa izateko bidean, betiere hezkuntzan, ikerketan, jakintzan, berrikuntzan eta ikaskuntzan oinarritua, biztanleen ongizatea eta bizi-kalitatea zaintzeko. Munduari irekita egon nahi du, baina bere kultur nortasunari, baliabide naturalei eta biodibertsitateari eutsiz, pertsonen talentua garatu eta leial bihurtuko diren pertsonak garatzeko etorkizun erakargarria eraikitzeko, munduko herrien garapenarekin konprometituta.

4. Printzipio nagusiak

Garapen iraunkorrak, zuzenean iraunkortasunaren kausetan jarduteaz gain, politikak sortzeko edo ekintzak ebaluatzeko beste modu bat ere behar du, ondorioak sakonago aztertuko duen eredia. Iraunkortasuna aztertzeko prozesu horren gidari izateko, ondoko oinarritzko printzipio hauek ezarri dira, bai politiketarako, bai erakundeen lidergorako: Belau-naldien arteko erantzukizuna, garapen iraunkorraren ikuspegia politika guztien muinean txertatzea sailen eta politika sektorialen eremuen koherentzia eta koordinazioa hobetuz, politika bakoitzak hiru dimentsioetan (ekonomia, gizartea eta ingurumena) dakartzan ondorioak modu orekatuan aintzat hartzea, hiru ardatzen arteko aurrerapen orekatua bermatuz. Laugarrenik, baterako erantzukizuna.

5. Helburu estrategikoak eta 6. Jarduketa-ildoak

EAErentzat emandako ikuskeraren ondoriozko garapen iraunkorraren inguruko bikaintasuna aintzatetsi ahal izateko, beharrezkotzat jotzen da zenbait helmuga partzial aurreratzea. Termino objektiboetan emanda, bederatzi helburu estrategiko dakartzate. Diagnostikoaren fasearen amaieran aipaturiko iraunkortasun-gakoekin dute zerikusi zuzena. Hala-ber, helburu estrategiko bakoitzean aurrera egiteko, hainbat jarduketa-ildo garatu dira:

1. Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta irekiarekin lotzea:
 - 1.1 Ekonomia berritzailea, ekintzailea eta teknologiaren aldetik aurreratua bultzatzea, jakintzan, sormenean, lankidetzan eta ahalmenetan oinarritua.
 - 1.2 Enplegu berdeen sorrera sustatzea, kontsumoa eta lehengaien edo baliabide naturalen arloko ekoizpen-mendekotasuna gutxituz eta iraunkortasuna lehia-abantaila bihurtuz
 - 1.3 Enpresak nazioartekotzea bultzatzea
2. Euskadi erabat integratzailea eta kohesionatua finkatzea, enplegua, hezkuntza, prebentzioa eta elkartasuna oinarri hartuta.
 - 2.1 Gizarteratzea eta gizarte kohesioa bermatzea
 - 2.2 Prebentzioa, osasunaren sustapena eta autonomia bultzatzea, baita baliabideak berdintasunez eskuratzea ere gizarte determinanteen ikuspegitik.
 - 2.3 Berariazko enplegu politika aktiboak sortzea.
3. Gizarte babeseko sistemak indartzea, garapen harmoniatsua, osasungarria eta zuzena bermatzen jarraitzeko.
 - 3.1 Jaiotze-tasa handitzeko lagungarriak diren politika aktiboen eremu orokorra sortzea.

- 3.2 Egungo ongizatearen egoeraren iraunkortasun fiskala finkatzea.
4. Gure baliabide naturalak eta biodibertsitatea zaintzea, betiere lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetatzen dituen antolamendu orekatua landuz.
- 4.1 Hiri trinkoaren eredia bultzatzea
- 4.2 Ekosistemen eta baliabide naturalen gaineko presioa murriztea, horien kalitatea hobetuz.
- 4.3 Landa garapen osoa sustatzea lurraldeko balio naturalak babesteko.
5. Energia iturri fosilen gaineko energi mendekotasuna gutxitzea, negutegi-efektuko gasen emisioak murriztea eta klima aldaketaren ondorioak leuntzea
- 5.1. Energi eraginkortasunaren hobekuntza eta energi kontsumoaren murrizpena bultzatzea.
- 5.2. Energia berriztagarriak sortzea eta erabiltzea sustatzea
- 5.3. Klimaren aldaketa leuntzea eta egokitzapen-ekintzak gauzatzea
6. Mugikortasun eredu integratua eta iraunkorragoa sortzea, lurraldearen barnealdeko egituraketa eta kanpoaldeko lotura lehiakortasun-baldintza hobeetan bideratzeko.
- 6.1 Garraiobide iraunkorragoak sustatzea.
- 6.2 Irisgarritasuna mugikortasun egoera egokietan eta seguruetan lortzea, azpiegitura eta zerbitzu integratuetan oinarrituta
7. Balioetan oinarrituriko kalitatezko hezkuntza sistema malgua sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratua eta heziketa eta prestakuntza-edukiak egokituta, hain zuzen ere bitzta osoan lan-merkatuak eta

gizarteak behar dituen gaitasunetara egokituta, iraunkortasunaren dimentsio guztiak barne.

- 7.1 Bizitza osoan lan eta gizarte bizitzarako gaitasunak emango dituen heziketa sistema garatzea, iraunkortasuna barne dela.
- 7.2 Balioetan oinarrituriko heziketa sustatzea, bereziki iraunkortasunarekin lotutakoak.
- 7.3 Euskal kulturaren eta nortasun horren ezaugarri bereizgarrien nazioarteko proiektzioa bultzatzea.

II/11j

- 8. Herri administrazio berritzailea eta eraginkorra hedatzea, herritarrentzat irisgarria eta gardena.
 - 8.1 Kudeaketa publikoa modernizatzea, herritarrekiko harremanetarako bideak berrituz.
 - 8.2 Herri Administrazioaren eraginkortasuna indartzea, antolakuntza eta eskumenen banaketa berrikusiz eta erakunde barruko eta erakunde arteko lankidetzak eta koordinazio moduak indartuz.
 - 8.3 Gizarteak parte hartzeko eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko partaidetzarako formuletan aurrera egitea.
- 9. Euskadik Milurtekoaren Helburuak betetzeko ekarpena egitea eta, oro har, herrialde pobreenen garapen iraunkorrerako.
 - 9.1 Herrialde pobreen garapen iraunkorrerako ekarpen handia egitea lankidetzak-proiektuen bidez.
 - 9.2 Merkataritza eta turismo arduratsuak bultzatzea garapen-bideetan diren herrialdeekin.

7. Zeharkako guneak

Ezarritako zenbait helburu estrategikok oso lotura handia duenez gero, Estrategiak beharrezkotzat jotzen du lehentasunezko arreta-eremua ze-

haztea, zeharkako guneak; izan ere, haien garrantzi horizontala, epe luzerako dakartzan ondorioak eta egituratzeko duen zailtasuna direla-eta, arlo anitzeko taldeen jarraipena eta koordinazioa behar dituzte, sailen artean nahiz erakundeen artean, baita gizarte-ekonomia eragileen partaidetza handia ere. Ondoko lau gune zehaztu dira, eta bakoitzak hainbat lan-ildo ditu:

- Iraunkortasunerako berrikuntza eta jakintza.
- Gazteak martxan.
- Enplegua ekonomia globalean.
- Bizi-kalitatearen baldintzatzaileak.

8. EcoEuskadi 2020 Agintea.

Magnitude garrantzitsuen aldaketa adierazteko seinaleen sistema ezarzen du, hain zuzen ere Estrategiak ezarritako helburuak 2020an lortu ahal izateko zaindu beharrekoak. 3 adierazle mota ditu:

- Buruko adierazleak.
- Politikak jarraitzeko adierazleak.
- Estrategiaren kudeaketaren aurrerapenari buruzko adierazleak.

Bi azken modalitate horien barruan, goranzko, beheranzko edo aldakuntzarik gabeko zenbait adierazle ezarri dira, zehazturiko helburu estrategiko bakoitzarekin lotuak. Buruko adierazleen aldetik, hainbat helburu kuantitatibo ezarri dira; horiek lortzea funtsezkotzat hartzen da 2020ko ikuskeraren arrakastarako:

- 20 - 64 urte arteko herritarren enplegu maila handitzea: egungo %68tik gutxienez %75era.
- I+G+b-ko inbertsioa handitzea: BPGaren %2tik %3ra.
- Negutegi-efektuko gasen emisioak murriztea 1990eko mugak lortu arte. Energia berriztagarriek energiaren azken kontsumoan duten proportzioa %10era igotzea, eta %20 energi eraginkortasunarena.

- Eskola uzten dutenen proportzioa %10etik behera murriztea (egungoa %12,6koa da) eta goi mailako ikasketak bukatzen dituzten 30 eta 34 urte bitarteko herritarren portzentajeari %40tik gora eustea.
- Pobreziaren mugetatik behera bizi diren pertsonen kopurua murriztea: egungo %19tik %15era.

9. Kudeaketa-eredua

Garapen Iraunkorrerako Estrategiak kudeaketa publikoaren sail arteko ikuskera gainditu, politiken integrazioa sustatu eta gobernuaren eraginkortasuna hobetzen du. Aurreikusitako jarduketarik gehienak sailen eta gainerako erakundeen plan estrategikoekin bideratzen dira eta, beraz, koordinazio eta kudeaketa sistema bat egituratu beharra ikusten da, sailen erantzukizunekin bateragarria den sistema:

Lehendakariari dagokio kudeaketa egiteko, abiarazteko, berrikusteko eta birsortzeko liderra izatea, herritar eta ekonomia-gizarteko eragileekiko sentsibilizazio eta komunikazio prozesua eramateko ere eta, eskuordetzeaz, Lehendakaritzari. Laguntza teknikoa emango die sailei ere Garapen Iraunkorrerako Bulegoaren bitartez; sail arteko eta erakunde arteko proiektuak bultzatu eta kudeatuko ditu; jarduketak behar bezala egiten direla ikuskatu eta gobernuaren estrategia sektorialak eta sailen planak Estrategian bildutako irizpideekin eta printzipio zuzentzaileak bat datozen ala ez jakinaraziko dio aurretik Gobernuari.

Eginkizun horiek betetzean, Garapen Iraunkorrerako Bulegoa baliatuko du, Estrategia abiarazteko prozesua bultzatzeko eta koordinatzeko organoa baita. Erakunde hauetan dago egituratuta:

- Eusko Jaurlaritzaren Sail Arteko Batzordea, tartean diren sailetako sailburuordeak diren ordezkariak osatua.
- Erakunde Arteko Batzordea, gobernuko, hiru aldundietako eta *Eudeleko* ordezkariak osatua.
- Batzorde Teknikoa, Sail Arteko Batzordean ordezkariak duten sailetako ordezkari teknikoek eratua.

- Jarraipen Batzordea, Lehendakaritza Koordinatzeko Zuzendaritzak eta Ingurumen Saileko Kabinete, Hedabide eta Ingurumen Plangintza Zuzendaritzek eta *Ihobeko* zuzendari nagusiak osatua.
- Idazkaritza Teknikoa: Bulegoko gainerako erakundeen funtzionamendu onerako baliabide teknikoak jarriko ditu eta Estrategia behar bezala hedatzeko kudeaketako jarduerak koordinatuko ditu. *Ihobeko* langileek beteko dute eginkizun hori Lehendakaritzak beren beregi izendaturiko ordezkari bidez. Batzorde Teknikoarekin eta aldundietako organo baliokideekin eta Eudelekin lankidetzan aritzeko bideak ezarriko ditu.

Sail Arteko Batzordeak eta Erakunde Arteko Batzordeak iraunkortasun-printzipioak sustatuko dituzte politika sektorialetan eremu bakoitzean eta Batzorde Teknikoaren eta Idazkaritza Teknikoaren lanak onetsiko dituzte. Gizarte-ekonomiako Gaietarako Lehendakaritzaren Kontseilu Aholku-emailea Garapen Iraunkorrerako Kontseilu bihurtuko da estrategiaren aurrerapenak egiaztatuko dituen organo aholku-emailea den aldetik.

11/11 

Estrategia integraztekoa denez gero, Estrategian aurreikusitakoaren arabera, sail eta erakunde eskudunen pentzura finantzatzeko dira jarduketak, aurrekontu-baliakizun gehigarriak gabe.

Jarraipen tresna gisa, *Garapen Iraunkorreko Urteko Txostena* planteatzen da, Garapen Iraunkorreko Bulegoak egina, estalitako jarduketak abiarazteko aurrerapen-maila ebaluatuz. Iraunkortasun-irizpideak sailen politika sektorialetan txertatzeko mailari buruzko ebaluazioaren ondorioak ere bilduko ditu. Bi urterik behin, inkesta egingo zaie herritarrei, iritzi publikoak iraunkortasun osoaren funtsezko ezaugarriei buruz uste duenaren bilakaera ebaluatu ahal izateko.

2015ean berrikusiko da Estrategia, eta Gobernu Kontseiluak onetsiko du Sailen Estrategiak berrikusteko prozesuei ekin baino lehen.

Planteaturiko jarraipen, ebaluazio eta berrikuspen moduei eutsiko zaie erakunde, gizarte eta ekonomia eragileek, gazteek eta oro har herritarrek parte hartzeko prozesuan. Berriazko tresna gisa, urteko topaketarako presentiazko jardunaldia aurreikusten da, "Garapen Iraunkorrerako Fo-

roa", Estrategia abiarazteko informazio, erkaketa eta eragileen partaide-tzarako gunea den aldetik.

10. Iraunkortasun-irizpideak politika sektorialetan sartzeko jarraibideak

Politika sektorial guztietan txertatu beharreko kontzeptu gisa, administrazioaren eginkizunaren nahitaezko printzipio zuzentzailea da garapen iraunkorra, Eusko Jaurlaritzaren eta tokiko administrazioaren eta horien erakundearen kudeaketa prozesuetan eta plangintzan sartu behar-koa. Hainbat agiritan oinarrituriko zenbait irizpide biltzen ditu estrategiak. Esaterako: Europa Estrategia 2020 eta Nazio Batuek eta OCDEk eman-dako nazioarteko beste dokumentu batzuk.

II/11j

Politika bakoitzak hiru dimentsioetan (ekonomia, gizartea eta ingurume-na) dituen ondorioak orekatzeko printzipioa sakontzeko prozesua zuzen-tze aldera, 15 irizpide zehaztu dira, garapen iraunkorreko hiru ardatzei dagozkien ondorioak.

Iraunkortasun-printzipioak administrazioaren sail bakoitzaren jardunean sartzekak isla izan behar du politiken eta kudeaketa eta lidergoaren ar-loetan nahiz sailean lan egiten duten pertsonen eremuan eta bertako eragiketa-prozesuen kudeaketaren arloan. Nahiz eta lehenengoa eremu-rik garrantzitsuena izan, garapen iraunkorraren printzipioekin bete behar dira beste hirurak, eta garapen iraunkorraren printzipioak agerrarazi be-har diren eremu horietako bakoitzaren ezaugarriak zehazten ditu Estrate-giak.

Amaitzeko, **3 Eranskin** dakartza Estrategiak:

1. Gobernuaren planak eta Garapen Iraunkorrerako 2020 Estrate-giaren helburu estrategikoak bateratzea.
2. Garapen Iraunkorreko Estrategia 2020 eta foru aldundien eta Udalsarea 21en garapen iraunkorreko planen helburuak bateratzea.
3. Parte hartzeko prozesuaren laburpena.

III. OHARBIDE OROKORRAK

Garapen iraunkorra ezinbesteko helburu bilakatu da azken hamarkadetan nazioarteko eta gure inguruko herrialdeen agenda politikoan. Ingurumena narriatzeari eta gizakiaren osasunean eta espezie eta habitaten babesean dituen ondorioei buruzko planteamendu zatikatuarekin joan den mendearen erdialdetik hona bilakaera luzea izan ondoren, iraunkortasuna dagoeneko ez da soilik ingurumen kontzeptutzat hartzen eta era askotako iraunkortasun arazoak sartu dira. Azkenean, 1978an Brundtland definizioa eman zen, garapen ekonomikoa eta soziala eta ingurumena banaezinak direla ezarri duena. Nazio Batuek, ondoz ondo, ingurumenari eta garapenari buruz eginiko hitzaldietan iraunkortasunaren helburuak zehaztu dira gizartearen arloan, eta 1992ko Rioko Konferentzian, munduko ingurumen arazoek baldintza ekonomikoekin eta gizarte justiziako arazoekin lotura estua duten ideia landu zen. Gainera, epe luzerako emaitza iraunkorrak lortzeko, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik dauden beharrak elkarrekin orekatu behar direla aldarrikatu zen.

11/11 

Une horretatik hasita, nazioarteko erakundeek eta, ondoren, Europako Batasunak iraunkortasun arazoei aurre egiteko prozesu, estrategia eta tresnen koherentzia eta eraginkortasuna hobetzeko deia egin die estatuei, eskualdeei eta udalerriei, baita garapen iraunkorraren aldeko estrategiak egiteko ere. Horretarako, eremu estrategiko eta xedapen instituzional egokiak ezarriko dira, hain zuzen ere hiru dimentsioak (ekonomia, gizartea eta ingurumena) politika publikoak sortzean bateratzeko eginkizun zailerako xedapen egokiak.

Garapen iraunkorreko estrategiak tresna egokiak dira hainbat maila instituzionaletatik aurrerapen ekonomikoa, gizarte justizia, ingurumena eta baliabide naturalak Europa mailan eta mundu mailan arriskuan jartzen dituzten erronka handiei aurre egiteko ekintza prozesua bateratzen laguntzeko eta, gainera, herritarrak erronka horiez jabetzea ere ahalbidetzen du, baita lurralde erakunde bakoitzeko iraunkortasun-jarraibide espezifikoei aurre egiteko ere.

Hori guztia dela-eta, Batzordearen osoko bilkurak, 2008ko otsailean, aldarrikapena¹ egin zuen: *gure Autonomia Erkidegoan garapen iraunkor*

osoaren helburua benetan lortzeko lana egitearen aldeko apustua egiten zen, eta horretarako, premiazkoztat jotzen zen soilik ingurumena aintzat hartzen duen estrategia (egun EAEn indarrean dagoena) gainditzen duen Garapen Iraunkorrerako Estrategia egitea eta abiaraztea, hiru dimentsioak bilduko dituen (ekonomia, gizarte eta ingurumena).

Iraunkortasunaren kontzeptuaren eta asmoaren jauzi kualitatibo hori gorabehera, garapen iraunkorrean aurrera egiteko helburua EAEn bilitzen duen arau-lerruneko xedapen bakarra dago: ingurumen araua da, *Ingurumena Babesteko Lege Orokorra*, eta Eusko Jaurlaritzak 2011ko urtarilean izenpeturiko EAerako *Iraunkortasunaren aldeko konpromisoa*, politika berriek garapen ekonomikoa, gizarte kohesioa eta ingurumena-
ren babesa bateratzearekin duten konpromisoa aldarrikatu badute ere. Horrek guztiak isla izan zuen Garapen Iraunkorrerako Ingurumen Euskal Estrategian; izan ere, izenak berak adierazten duenez, ingurumen politikaren antolamendu egonkorra eta epe luzerakoa bermatzen du, baina ekonomiaren eta gizartearen arloko ezaugarriak ez dira ezarri.

EcoEuskadi 2020: Euskadiko Garapen Iraunkorrerako Estrategia 2020 ekimenaren bidez, gure administrazioaren jarduketa publikoa garapen iraunkor osoaren postulatuarekin bateratzeko borondatea gauzatu du Eusko Jaurlaritzak, euskal administrazioen politika sektorialen multzoa bideratzea ahalbidetuko duen eremu estrategikoa emateko gure Autonomia Erkidegoari, betiere iraunkortasunaren hiru dimentsioak bilduta: ingurumena, ekonomia eta gizarte. Alde horretatik pozik gaudela esan

1.-Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, *Garapen Iraunkorra, Politika Publikoen Erronka, EAE-n Ekonomia, Gizarte eta Ingurumena Aintzat Hartzen Dituen Garapen Iraunkorreko Estrategia Sortzeko Jarraibideen Zehaztapenerako Konparazio Ikerketa*. 2008ko otsailaren

Azterlan horretan, hainbat gomendio egiten ditu EGABk, Garapen Iraunkorrerako geroko Euskal Estrategia sortzeari begira; Estrategia horrek hiru dimentsioak bilduko ditu, ekonomia, gizarte eta ingurumena, hamar urrats hauek betetzean oinarrituta: 1. Garapen Iraunkorrerako Ingurumen Euskal Estrategia garapen iraunkorraren kontzeptu zabalagoaren barruan txertatzea, non ingurumen, gizarte eta ekonomiaren arloak txertatu eta elkarrekin lotzeko modua benetakoa izango den; 2. Lidergoa ematea Garapen Iraunkorrerako Euskal Estrategiari, gobernuaren beharrezko konpromisoa eta bultzada emateko eta euskal administrazioaren egitura organikoiei estrategia egitea agintzea, haien izaerari eta edukiei egokitu; 3. Erakundeen arteko koordinazioa bermatzea estrategia egiteko, abiarazteko eta jarraitzeko, prozesuan benetan praktikoa ere delarik bermatuz, eta foru aldundiek planteamenduak bereganatzea. Halaber, gomendagarria da tokiko administrazioen partaidetza bermatuko duten mekanismoak bideratzea; 4. Estatus egokia ematea, Eusko Legebiltzarrean eztabaidatuta eta adostasun mailarekin onetsita; 5. Gizarte partaidetzarako mekanismoak indartzea estrategia egiteko; 6. Kontsulta sistematikorako mekanika ezartzea, formala eta intereseko eragileentzako gardena, eta gainera, kontsulzen emaitza praktikoa ere agerian gelditzen dira; 7. Profil tekniko nabarmena duen foroa sortzea, gobernutik apartekoa eta estrategia egiteko, jarraitzeko eta ebaluatzeko prozesuan aholkuak emateko. 8. Sailek kudeaketa iraunkorrean duten partaidetza indartzea, iraunkortasunaren ikuspegi osoa indartzeko beharrezko administrazio prozedurak ezarrita, adituak garapen iraunkorrean sartuta eta arazo nagusiak, helburuak eta estrategiaren zabalakunde gisa jarduteko planak argi erakutsiko dituen garapen iraunkorreko estrategia sektoriala eginda; 9. Helburuen eta adierazleen arteko lotura estuagoa ezartzea, emaitzen eta ekintzen artekoa, informazio hierarkia ezarrita xehetasunetik gehieneko eransketa garrantzitsura; 10. Ebaluazio mekanika ezartzea, estrategia betetzetik eta iraunkortasunaren egoeratik apartekoa: onespeneren estatusarekin bat etorritik, Legebiltzara ere inplikatu du.

behar dugu, eta hiru arlo horietako prozesuen arteko loturak nabarmendu behar ditugu eta, azken finean, tresna indartsua izango dugu euskal gizartearen geroko ongizateak iraunkortasunaren arloan dituen erronkak modu eraginkorragoan bideratzeko.

Garapen Iraunkorrerako Estrategia Osoa EAEn egiteko eta abiarazteko lagungarria izateko asmoarekin eta EGABk Garapen Iraunkorrerako Europako Estrategiaren, estatuko eta gure gizarte-ekonomia inguruko hainbat herrialdetako eskualdeen eta Garapen Iraunkorrerako Ingurumen Euskal Estrategiaren gainean eginiko azterlan² konparatua hartutako esperientzia ikusita eta azterlan horretatik EGABk atera zituen ondorioak eta gomendioak aztertuta, egoki irizten diogu balorazioak eta oharrak eta Estrategia hobetzeko gomendioak egiteari horrelako tresnetan funtsezkotzat jotzen dituen ezaugarrien inguruan. Horiei guztiei esker, helburuak lortzera hobetu bideratu ahal izango da Estrategia: Lurralde-eremua eraentzen duten beste maila instituzional batzuekin bat datorren ikuspegia, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloetako iraunkortasun-joeren diagnostikoa eta identifikaturiko iraunkortasun erronkekin bat datozen helburuak, helburu zenbagarriak eta ekintza konkretuen eta tresnen bidez garatuak eta ebaluazio eta berrikuspen prozesuen eta adierazleen bidez jarrai daitezkeenak, gizartean eta erakundeetan parte hartzeko mekanismoekin batera. Burutu beharreko atazen sail arteko eta erakunde arteko izaera horrekin bat datorren lidergoa, eta estatus juridiko egokia:

- Ikuspegi horretatik, horrelako estrategia mota abiarazteko Eusko Jaurlaritzak duen ekimenari buruz Batzorde honek egiten duen oso balorazio positibo hori garapen iraunkorrerako estrategiak bete beharreko oinarritzko baldintzak betetzearen arloan ere egin beharra dago, eta bereziki, berariazko elementu hauen inguruan:
 - Estrategia bat etortzea Europa 2020 Estrategian agerrarazitako garapen iraunkorreko planteamenduekin, baina beren beregi aipatu beharko lirateke dokumentuan estatu mailako nahitaezko erreferenteak, Garapen Iraunkorrerako Espainiako Estrategia, 2007an onetsia, eta Ekonomia Iraunkorrerako 2011ko martxoko Legea.

- Garapen iraunkorrerako estrategia osoa egiteko eta bideratzeko lan konplexua, aldi berean EAEko erantzukizun instituzionaleko eta Eusko Jaurlaritzaren erantzukizun sektorialeko hainbat arlori eragiten diona, gobernuko gorengo agintaritzaren bere gain hartu eta liderra izatea, gobernuaren ekintzaren izaera globalizatzaile-agatik eta gainerako euskal administrazioetan duen ordezkartza instituzionalagatik. Lehendakariaren lidergoa eta konpromisoa funtsezkoak dira bidean euskal administrazioen eta sailen artean ager litezkeen zailtasunak gainditzeko.
- EAEn joera eutsiezinei buruzko diagnostiko garrantzitsua egitea aldeztuz, Estrategiaren edukia zehazten duena helburu estrategikoetan, hain zuzen ere indarreko gizarte-ekonomia ereduaren jarraipenerako arriskutzat hartutako iraunkortasunaren arloko arazoak aurre egiteko helburuetan. Estrategiaren eta diagnostikoaren arteko lotura estu hori dela-eta, ordea, beren beregi ezarri behar dira Estrategian, labor baina zabalago, gaur egun 1. Kapituluaren diagnostikoaren funtsezko elementuak eta iraunkortasun erroka aipatuak biltzen dituela.
- Ahalegin handiak egitea parte-hartze zabalean oinarrituriko Estrategia egiteko prozesuari. Alabaina, partaidetza hori ez da soilik banakoek bere aldetik parte hartzearekin lotu behar, baizik eta hainbat interes kolektiboren ikuskera eta konpromisoa ere bildu behar ditu eta, beraz, eragile ekonomikoaren eta sozialen partaidetzari dagokionez, errezelo nabarmenak adierazi behar ditugu, ondorengo atal batean aztertuko dugun lez.
- Sailen arteko eta erakundearen arteko ikuspegia sartzearen gaineko sentsibilizazioa ere ikus daiteke Estrategia prestatzeko eta kudeatzeko, aldundiak eta Eudel barne direla, baina sakontasun eta partaidetza handiagoak behar direla irizten diogu.
- Epe luzerako prozesuarekin bat etorritik, eta atzera elikatze elementuak sartu beharra dagoela-eta, Estrategia aldundiak-aldian ebaluatze eta berrikusteko sistema bat aurreikusi da eta, horretarako, jarduketak neurtzeko eta jakinarazteko mekanismoak gauzatu dira. Gainera, gizarte partaidetzarako irizpideak aurreikusi dira.

- Estrategiaren hiru dimentsioko izaera hori eta garapen iraunkorra euskal politika publikoen hiru dimentsio horiek (ingurumena, ekonomia eta gizartea) txertatu eta lotzen dituen kontzeptuan sartzea da, arestian nabarmendu behar dugunez, aurkeztu zaigun agiriaren funtsezko ekarpena. Hiru dimentsio horiek oso urrats kualitatibo handia dira gure gizartearen iraunkortasunari eragiten dioten arazo handiei aurre egiteko ikuskera publikoan, eta elementu bereizlea da EAEn indarrean dagoen Garapen Iraunkorrerako Estrategiaren peko egoera honetan; izan ere, egungo Estrategia dimentsio bakarrekoa da, soilik ingurumenaren ingurukoa. Horregatik, proposatzen zaigun Estrategia berriak bere balio erantsiari eta egungo egoerarekiko bereizlea izateari eusteko, funtsezkoa da ikuspegi ekonomikoa eta soziala orekatuta ingurumenari dagokionarekin batera. Eta horixe bereziki nabarmendu nahi dugu, garapen iraunkorraren kontzeptuaren inguruan oraindik dauden inertiak direla-eta; izan ere, hertsiki ingurumenaren inguruko betiko ikuspegiarekin identifikatzeko joera dago (balio beza etsenplu gisa Lehendakariak ingurumenaren munduko egunean eta “Urdaibaiko adierazpena”ren testuinguruan emandako EcoEuskadi 2020 ideiak, baita gobernuak hasieran strategiaren onespina eta ingurumenaren munduko eguna batera izateko agertutako borondateak ere), baita estrategian bertan Estrategiaren hiru dimentsioko izaera horrekin guztiz bat ez datozen elementuak ere hala nola estrategia egiteko eta kudeatzeko idazkaritza teknikoa soilik ingurumenekoa den administrazio organo bati esleitzea edo Ingurumen Saileko ordezkariak (Estrategia bultzatu duen organo jardun-organoa) Jarraipen Batzordean emandako neurriz kanpoko pisua.

EAErako iraunkortasun etorkizunaren bermearen ardatza, izan ere, ingurumenaren eta baliabide naturalen eta biodibertsitatearen ingurukoa da, baita ingurumen oharbideak ekoizpen-moduetan eta herritarren bizimoduetan txertatzearen ingurukoa ere, baina egun bizi dugun krisialdian hain agerian gelditzen denez, kalitatezko lanpostuak eta aberastasuna sortzeko eta herritarrentzako bizi-kalitatea eta aukerak sortzen dituen gizarte ongizatea eta kohesioa lortzeko gai den ekonomia oparoaren garapenaren inguruan ere bai. Horrenbestez, hiru aldagaiak modu orekatuan bateratzean datza strategiaren arrakasta; beraz, horretaz jabearazi behar ditugu Estrategia abiarazteko ardura dutenak.

- Egoki irizten diogu hainbat planteamendu eta gairen gaineko zenbait oharbide eta gomendio egiteari. Hona hemen oharbide eta gomendiok:
 - Estrategiak bere xedea aldarrikatzen du: *Garapen iraunkorraren abangoardian izango den Herrialde proiektu baten eraikuntzan aurrera egitea*. Nahiz eta asmo handizalea erronkak gainditzeko eta maila altuak lortzeko beharrezko pizgarria izan, frustrazio eta adorea galtzeko iturri ere izan daiteke lortu beharreko helmugak ez badatoz bat bitartekoekin. Hori dela-eta, gure ustez hobe da gehiegizko erretolika saihestea eta errealismo handiagoa azaltzea, testuaren azterketaren ardatza Estrategia eraginkorra izatera bi-deratzeko.
 - Hala ere, dokumentuaren planteamenduak zenbait ñabardura exi- jitzen dizkigu, eta ñabardura horiek ekonomia eta gizarte arloetan nahiz aldarrikatzen duen mundu mailako elkartasunaren planteamenduan dute eragina.

Dokumentu honetan behin eta berriz aipaturiko ekonomia "berria"ren aldeko konpromisoa ez dugu norabide aldaketatzat hartu behar, baizik eta garapen iraunkorreko eredu "berri" bat (hiru dimentsiokoa) ezartzearekin lotutako "berrikuntza"tzat; berrikun- tzaren gero eta indar handiagoa eta merkatu globaleko lehiakor- tasunak etengabe inposatzen dituen erronka berriak gainditzeko bidean aurrera egitea da, ingurumen eta energi eraginkortasuna barne. Hortaz, euskal ekonomiaren ereduren testuinguru horretan sakontzea esan nahi du, gure garapen ekonomikoaren maila han- diaren eta oparoaren zutabea den industri ekoizpenean oinarritua; izan ere, egungoa moduko sasoi zailetan, sendoa dela eta beste sektore batzuetan oinarrituriko gure inguruko ekonomiek susper- tzeko dutena baino askoz ahalmena handiagoa duela erakutsiko du gure ekonomiak. Okerrekoa izango litzateke gure sustrai eko- nomikoak eta gure jardunbide onak alde batera uztea kanpoko esperientzien onurarako.

Bestalde, herrialde proiektu gisa gizartearen arloan ditugun as- moak ezin bete daitezke biztanleen "ongizatea eta bizi-kalitatea" adierazte hutsarekin; ezinbestekoa da enplegua sartzea, egun

dugun benetako erronka baita, edozein gizarteren ongizatea eta bizi-kalitatea egituratzen duen elementu determinantea eta inguruko ahaleginak bildu behar dituen, bai lanpostuak sortzeko, bai kalitatezko enplegua izan dadin. Hori guztia gizarte babes sistema egokia ahaztu gabe, gizarte kohesioa, integrazioa eta elkartasuna bermatuko dituen sistema. Testuinguru horretan, Estrategiak emandako iraunkortasun-irizpideek ikuskera horrekin bat etorri behar dutela esan beharra dago. Hala, esaterako, irizpide honen idazkuntza aldatu beharko litzatekeela irizten diogu, *politika sektorialeko politketan iraunkortasun-irizpideak sartzeko jarraibideetako iraunkortasun ekonomikoko irizpideen artean bildua: gizarte eta giza kapitalean oinarrituriko ekoizpen-kapitalari termino kuantitatiboetan eta kualitatiboetan eustea*. Gure ustez, egun “eustea” dioen tokian “hobetzea” agerrarazi beharko litzateke³.

11/11

Ekonomia lehiakor eta ekoeraginkorraren bidean egin behar dugu aurrera, beraz. Lanpostuak sortu behar ditugu, lanpostu egokiak kopuruaren eta kalitatearena aldetik; norbera eta lanbidean errealizatzeko aukera dakartzan ekonomia, gizarte kohesionatua eta integratua ongizatea eta bizi-kalitatea emango dituen.

Azkenik esan behar dugu EcoEuskadiren 2020rako ikuskerak munduko herriekiko konpromisoa bildu duela, eta gure ustez horrek ez dakar soilik nazioarteko elkartasuna, baizik eta Estatuko lurraldeen garapen ekonomiko eta sozialerako lagungarria izateko konpromisoa ere agerrarazi behar du beren beregi.

- Garapen iraunkorreko estrategiek oro har, eta honek bereziki, denboran eutsiko den jarduketa-prozesua elikatzen dute epe luzerako helburuak lortzeko. Hori dela-eta, Estrategiarako aurreikusitako indarraldia, 2020. urterako, laburregia dela irizten diogu; zentzuzkoagoa izango litzateke epe luzeagorako planteamendua egitea, berriuspenak barne direla.
- Epe luzerako proposamena denez gero, adostasun eta berme zabalak behar ditu garapen iraunkorrerako estrategiak, parlamentuko gehiengoan eta ondoz ondoko legegintzaldien aldaketen aurrean “blindatzeko”. Dokumentuan ez da beren beregi ezer ze-

3.- 10. kapitulua. *Iraunkortasun irizpideak politika sektorialetan sartzeko jarraibideak*. Iraunkortasun ekonomikoko 2. Irizpidea, 1. taula

hazten estrategiak bere indarraldi osoan jarraitzeko bermatzeko aurreikusitako formulei buruz. Estrategiari estatus egokia ematea gomendatzen da, Estrategia Parlamentuan eztabaidatuta eta adostasun maila handiarekin onetsita. Are gehiago, lege-lerrunarekin onesteko aukera baloratu beharko litzateke.

- Estrategiak hiru dimentsio dituen gero, hura egiteko eta funtzionatzeko giza talde arduradunetan ere izan behar du isla, eta Batzorde honek beharrezkotzat jotzen du gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren aldetik erantzukizuna duten sailen benetako partaidetza konpentsatua. Halaber, ekonomia, gizarte eta ingurumen sailak beren talde teknikoak garapen iraunkorreko adituekin indartu beharko luketela irizten dio Batzordeak.
- Gure aburuz, strategiaren baitan aurreikusitako Garapen Iraunkorrerako Bulegoak neurri batean baizik ez dio erantzuten eskema horri, eta halaxe diogu bereziki zeren eta soilik ingurumenekoa den erakunde bati eratziki baitzaio estrategia abiarazteko prozesua egiteko, koordinatzeko eta bultzatzeko idazkaritza teknikoa, noiz-eta hobe zatekeen erakunde askotarikoagoa aukeratzea. Era berean, ekonomia eta gizarte sailen ordezkartzearekin ere eratauta egon beharko luke Jarraipen Batzordeak, eta ez soilik Ingurumen Saileko ordezkariarekin, estrategia bultzatzeko eta horren inguruko metodologiak eta bitartekoak

Bestalde, gomendagarria izango zatekeen foro tekniko eta independente baten aholkuak jasotzea eginkizun horietan, baina komenigarria izango litzateke hura sortzea aurreikustea. Hartara, iraunkortasun independenteko gaitako teknikari adituak bildu beharko lirateke, jarraipen eta ebaluazio funtzioei begira, zeren estrategia egiteko prozesua ia bukatuta baitago.

- Aldundien esku-harteari dagokionez, garapen iraunkorraren inguruko lotura estua duten arloetan dituzten eskumenak ikusita eta gobernuak eginiko Estrategiarekin bat datorren planteamendua duen jarduketara bermatzea komeni dela ikusita, esku-hartzea egiteko eta kudeatzeko partaidetza egokia behar dela dirudi, Estrategian egun Garapen Iraunkorrerako Bulegoan eta parte hartze-

ko foroetan aurreikusita dagoena baino handiagoa. Estrategiaren onespenuk eta berrikuspenuk foru eremuko izapidea bildu beharko lukete, erakunde erkideen eremuan buruturikoaren baliokidea. Gainera, foru arduradunek bere eskumeneko arloetan parte hartzea ere ezarri beharko luke Estrategia egiteko, jarraitzeko eta koordinatzeko aldirian, topaketarako plataformen eta tresnen bidez. Politikoak ez ezik teknikoak ere izan behar dute tresna horiek. Bestalde, komenigarria izango litzateke erakundeen arteko azken hitzarmena instituzionalizatzea Estrategiaren beraren inguruan, eta geroari begira, estrategia jarraitzeko, ebaluatzeko eta berrikusteko txostenak ere bai, erakunde arteko erakundeen bitartez egun daudenen antzera. Adibidez, Finantzen Euskal Kontseiluan, foru arduradunek bakarrik ez tokiko erakundeetako arduradunek ere hartu behar dute parte. Hirigintzaren eta lurzoruaeren arloko udal eskumenetan gomendatzen denez, Estrategia egiteko, ebaluatzeko eta jarraitzeko partaidetza bideratzeko moduak sakondu beharko lirateke, erakundearen jardura-lerro osoan koherentzia handiagoa izateko, betiere iraunkortasunaren eskualdeko edo nazioz gairako ikuspegia ahanzi gabe. Hori dela-eta, badirudi gomendagarria dela udalei edo udalerriei ez ezik gainerako tokiko erakundeek, eskualdeek, koadrilei eta mankomunitateek beren beregi aipatzea hori estrategia osoan zehar.

- Gizarte partaidetzaren arloan, parte hartzeko foroak eta horien jardura handia izan dira. Hala ere, EGABrentzat kezkarria da foro berean oso jatorri, atxikipen eta ordezkartza ezberdineko partaidetza bildu izana, batzuen eta besteen oso ordezkartza ezberdinen ekarpenak bereizteko aukera barik eta gizarte eta ekonomi eragileen iritzia bildu barik hala nola ugazaberia, sindikatu eta ekonomia eta gizarte interesak ordezkartzen dituzten beste erakunde batzuenak. Lehenengoek ordenamendu juridikoan bertan ezarritako gizarte solaskidetza funtzioa betetzen dute, eta nolana ere, Estrategiaren planteamenduetan parte hartzen duten taldeen eta sektoreen ikuspegiak azaltzeko eginkizuna betetzen dute, ezinbestekoak baitira strategiak arrakasta izan dezan. Hortaz, Batzorde honek beharrezkotzat jotzen du kontsulta sistematiko, formal eta gardenerako jardunbidea ezartzea, eragile interesatu

bakoitzarentzat, non kontsultaren emaitzak agerian geldituko diren eta Estrategia egitea, jarraitzea eta ebaluatzea bilduko diren.

- Aurrekontuko baliabideak ezinbestekoak dira politika publikoak garatzeko, eta horren inguruan, Estrategian ez da aurreikusten estrategia abiarazteko berariazko baliabideak esleitzea. Bidezkoa da honako hau eskatzea behinik behin: sail bakoitzaren aurrekontuetan agertzea Garapen iraunkorreko Estrategia abiarazteko erabili beharreko zatia.
- Jarraipenaren eta ebaluazioaren modalitatearen oinarria gobernuaren organoen aparteko jardunbidea da, eta gainera, Estrategia egiten eta kudeatzen ere hartzen dute parte, baina objektibotasunari begira, hobe litzateke gobernutik aparteko organo batek burutzea. Gainera, ebaluazio independente hori jendaurrean aurkeztu eta parlamentuan eztabaidatu beharko litzateke, hura onesteko aldarrikatzen dugun estatusarekin bat etorritz.
- Jarraipen eta ebaluazio lana gauzatzeko adierazleak ezarri dira, hiru eremuei (ekonomia, gizartea eta ingurumena) dagokien diagnostikotik sortutako iraunkortasun-gakoeekin eta helburu estrategikoeekin bat etorritz, gomendagarria den bezala. Alabaina, nekez ebalua daitezkeen terminoetan egin dira iraunkortasun gako asko eta, beraz, Agintearen adierazleen zerrenda mugatua da. Bestalde, komunikazioaren ondorioetarako, adierazle sintetikoak saritzen saiatu beharko litzateke aukeraturiko adierazle tipologian, baita EAEn iraunkortasunaren bilakaera islatzen duen adierazle bakarra ere.

IV. ONDORIOAK

EGABk egokitzen hartzen du kontsultaren xedeko Estrategia Proiektua izapidetzea, honako Irizpen honetako oharbideekin.

Bilbon, 2011ko ekainaren 8an

O.E. Presidentea
Juan María Otaegui Murua

Idazkari nagusia
Francisco José Huidobro Burgos



**CES
EGAB**

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Gran Vía 81, 7. solairua

48011 Bilbao. Bizkaia

www.cesvasco.es

Maketazioa: Cuatrobarras Comunicación

Inprenta: Imprenta Gestingraf

Lege Gordailua: BI-1700-11